

Ohorezko euskaltzain diploma

Eskerrak zor dizkiot Euskaltzaindiari, bereziki Andres Urrutia Euskaltzainburuari, ohorezko diploma honentzat. Diploma honek oroitaraziko dit bakarrik deus ez dela egiten baina elkarrekin bide luzea egin dugula.

Alabaina duela 30 urte, Quebecetik etorri ginen Harluxet-mendi familia, Xarriton-Urruti bikotea eta Baxok-Samson familia. Orduan Ipar Euskal Herriko euskaltzaleak kartsutasun edo kasik sukar batean aurkitu genituen "Assises de la langue et de la culture basques" jardunaldietan, Jean Haritzelar aintzindari eta Manex Goihenetxe idazkari. Harrigarriko urrapidea abiatu zen, Pizkundera federazioa, Euskal Kultur Erakundera, 10 urtez kudeatu nuena eta eredu bilakatu zena beste erakunde batzuentzat, gizarte zibila eta gizarte politikoa uztartuz. Adibidez Garapen Kontseiluan hizkuntz antolaketa programatu genuen.

Hizkuntza Kontseiluak huts egin zuen baina azkenean Euskararen Erakunde Publikoak hizkuntza politika proiektua bere gain hartu zuen, lankidetzaz zabal bat kudeatuz euskalgintzako eragileen eta maila guztietako aginteen artean, Eusko Jaurlaritza eta Euskaltzaindia partaide. Harenbestetaraino non Euskararen Erakundera eredu bilakatu baita beste lurralde hizkuntzentzat, Frantziako gobernuaren aho-mihitan. Bakarrik deus ez dut egin, baina elkarrekin erakunde batzuek eraiki ditugu (Euskal Irratiak, Unibertsitate irakaskuntzak eta ikerketak aherentzi gabe), ireki genituen lan-ildoak aitzinarazteko xedearrekin urteetan zehar.

Gainera diploma honek kuraia ematen dit, ahal dudan lana jarraitzeko euskararen eta euskaldunen zerbitzurako, Sustengu Batzordeko ikerketetan, aipatu erakundeetan aholkulari edo bloga animatzaile. Berriz ere milesker egin didazuen ohorearentzat.

Erramun Baxok, 2010-02-26.